eginaren eginez

Zurekin Zuzenean

Zk. 24

ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE ÁLAVA - ARABAKO GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTEA

# BUZONES DE CORREOS EN LA CALLE POSTAS

**“Los leones de Correos se quedan en su esquina”.** Con este titular, y otros similares, se ha informado en la prensa local del avance de la reforma del edificio de Correos en la calle Postas y de cómo los tradicionales buzones de los “leones”, conocidos por prácticamente la totalidad de la ciudadanía, se mantienen en el edificio, en la misma esquina, -cuyo acceso se ha bajado a cota cero-, solo que cambiando de pared, y desde *eginaren eginez* añadimos **“¡E IGUAL DE INACCESIBLES QUE SIEMPRE!”,** ya que la altura, según se aprecia en la imagen de los medios supera la establecida por la Ley. De hecho, el pie de foto de la prensa señala que “Correos ha instalado un pequeño escalón para que la población no se ponga de puntillas al meter la carta”.



# POSTONTZIAK POSTA KALEAN

**«Correosko lehoiak beren izkinetan geratuko dira».** Titular horrekin eta antzekoekin jakinarazi da tokiko prentsan aurreratu egin dela Posta kaleko Correosen eraikina berritzeko lana; aldi berean, «lehoien» postontzi tradizionalak, ia herritar guztiek ezagutzen dituztenak, eraikinean mantenduko dituztela, izkina berean (zero-kotara jaitsiz), baina paretaz aldatuta. Hortaz, *eginaren eginez* elkarteak honako hau gehitzen diogu horri: **“ETA IRISGARRITASUNARI DAGOKIONEZ, BETIKO ARAZOAK!”**; izan ere, komunikabideetan zabaldutako irudian ikus daitekeenez, altuerak gainditu egiten du legeak ezarritako garaiera. Are gehiago, irudiaren oinean idatzita dagoenez, «Correosek maila txiki bat jarri du, herritarrak ez daitezen hanka-puntetan jarri gutuna sartzean».

# VIVIENDAS LLODIO

Se ha dirigido a la Asociación una promotora de viviendas ofertando una Vivienda, Parcela de Garaje y Trastero, adaptados para personas con movilidad reducida, en la Avenida Zumalakarregi, número 75, de la localidad de Llodio (Álava).

La vivienda en planta tercera consta de una superficie útil total de 83,56 m$^2$; distribuida en 2 dormitorios, cocina-salón-comedor, baño y 2 balcones. La parcela de garaje número 13 de la planta sótano -2, cuya superficie es de 21,72m$^2$, y el trastero número 10 de la planta sótano -2, cuya superficie es de 5,72 m$^2$.

La vivienda se encuentra a la venta por un precio de 230.000,00€ más IVA del 10% y la parcela de garaje y trastero por un precio de 19.000,00€ más IVA. Si alguna persona estuviera interesada en su adquisición, puede ponerse en contacto con la INMOBILIARIA IRUÑALAN sita en Plaza Alberto Acero nº 13 Bajo de Laudio/Llodio.




# LAUDIOKO ETXEBIZITZAK

Elkarteari honako eskaintza hau egin dio enpresa etxegile batek: etxebizitza, garajeko partzela eta trastelekua; mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta dago, Laudion (Araba), Zumalakarregi hiribideko 75 zenbakian.

Hirugarren solairuan dago etxebizitza, eta 83,56 m$^2$-ko azalera erabilgarria du. Bi logela, sukalde-egongela-jangela, komuna eta bi balkoi ditu. Sotoko -2 solairuan daude 13 zenbakiko garaje-partzela, 21,72 m$^2$-koa, eta 10. trastelekua, 5.72 m$^2$-koa.

Etxebizitzaren prezioa 230.000,00 € gehi % 10eko BEZa da; garajeko partzela eta trastelekuarena, berriz, 19.000,00 € gehi BEZa. Norbaiti eskaintza interesatzen bazaio, kontaktuan jar daiteke INMOBILIARIA IRUÑALANekin (Alberto Acero plaza 13, Laudio).




# AUTOESCUELAS

*eginaren eginez* se ha dirigido a la Asociación Provincial de Autoescuelas de Álava poniendo de manifiesto que en todo el Territorio Histórico de Álava no existe ni un solo vehículo que disponga de las adaptaciones necesarias para que personas con discapacidad física puedan realizar las prácticas de conducción y tras ellas, someterse al examen práctico para la obtención del Permiso de conducir clase B.

Este hecho supone que las personas con discapacidad física de Álava, que se encuentren interesadas en la obtención de Permisos de conducción, se vean obligadas a trasladarse a localidades fuera de la provincia, como Miranda de Ebro (Burgos) o Basauri (Bizkaia) para completar su formación y poder someterse al

# AUTOESKOLAK

*eginaren eginez* elkarteak Arabako Autoeskolen Elkarte Probintzialera jo du honako hau adierazteko: Arabako Lurralde Historiko osoan ez dago ibilgailu bakar bat ere beharrezko egokitzapenak dituena desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako; hortaz, ezin dute gidatze-praktikarik egin, ez eta B motako gidabaimena lortzeko azterketa praktikorik ere.

Ondorioz, Araban desgaitasun fisikoa duten pertsonek gidabaimena lortu nahi badute behartuta daude lurraldetik ateratzera; adibidez, Miranda de Ebrora (Burgos) edo Basaurira (Bizkaia) joan behar dira formazioa gauzatzera eta ibilgailu aproposarekin azterketa praktikoa egitera. Horrek zailtasun handiak dakartza.

examen práctico con el vehículo adecuado. Ello implica añadir importantes dificultades, tanto logísticas, derivadas de los traslados, como en el propio procedimiento de obtención del Permiso, ya que las Jefaturas Provinciales de Tráfico trabajan únicamente con las Autoescuelas de la provincia en cuestión (lo cual supone no poder realizar los trámites oportunos en la Jefatura Provincial de Tráfico de Álava).

La situación descrita es claramente discriminatoria para las personas con discapacidad. En Álava existen decenas de Autoescuelas que ofrecen sus servicios de clases prácticas de conducción, así como de asistencia al correspondiente examen. Sin embargo, en caso de tener una discapacidad física, este servicio no se presta, viéndose obligadas las personas interesadas en la obtención de dicho Permiso a trasladarse fuera para poder aspirar a ello. Además, debe tenerse presente que la obtención del Permiso de conducir es un aspecto imprescindible para preservar y fomentar la autonomía de las personas con movilidad reducida.

Desde *eginaren eginez* hemos requerido a dicha Asociación de Autoescuelas de Álava que su propia Asociación o alguna de sus Autoescuelas asociadas, disponga de al menos un vehículo que tenga instaladas las adaptaciones necesarias para que personas con discapacidades físicas puedan, tanto realizar las prácticas, como presentarse al examen práctico para la obtención del carnet de conducir clase B.

Alde batetik, traba logistikoak, lekualdatzeari dagozkionak. Bestalde, gidabaimena lortzeko prozedura bera; izan ere, Probintziako Trafiko Buruzagitzak dagokion probintziako autoeskolekin soilik egiten du lan (beraz, beharrezko tramiteak ezin dira egin Arabako Probintziako Trafiko Buruzagitzan).

Azaldutako egoera nabarmen diskriminatzailea da desgaitasuna duten pertsonentzat. Araban dozenaka autoeskolak eskaintzen dute gidatzeko klase praktikoen zerbitzua, baita dagokion azterketara joatekoa ere. Alabaina, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat ez dago halako zerbitzurik; hortaz, gidabaimena lortu dutenak kanpora joatera behartuta daude. Gainera, kontuan izan behar da mugikortasun urriko pertsonek gidabaimena lortzea ezinbestekoa dela haien autonomia babesteko eta sustatzeko.

*eginaren eginez* elkarteak honako hau eskatzen diogu Arabako Autoeskolen Elkarteari: Elkarteak berak edo dagokion autoeskoletako batek gutxienez ibilgailu bat izan dezala beharrezko egokitzapenekin; desgaitasun fisikoa duten pertsonek aukera izan dezaten, batetik, praktikak gauzatzeko eta, bestetik, B motako gidabaimena lortzeko azterketa praktikora aurkezteko.

# CONCESIÓN DE LICENCIAS

*eginaren eginez* se ha dirigido al Servicio de Edificaciones del Ayuntamiento para que, con carácter general, previamente a las concesiones de licencia de utilización, se compruebe que cada edificio construido se ha realizado con arreglo al proyecto técnico, a la licencia urbanística concedida en su día y a la totalidad de la normativa aplicable, en especial, lo dispuesto por el Decreto de Gobierno Vasco 68/2000, de normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad en edificaciones, de forma que dicha licencia no sea concedida hasta que se acredite el cumplimiento de la totalidad de los aspectos señalados. Ha motivado esta petición la existencia de inmuebles de viviendas, de nueva construcción, donde la puerta de acceso, por ejemplo, es totalmente inaccesible, debido al peso de la misma.

# LIZENTZIAK EMATEA

*eginaren eginez* elkarteak Udaleko Eraikuntzen Zerbitzura jo du honako hau eskatzera: oro har, erabilera-lizentziak eman aurretik egiazta dezala eraikitako eraikin bakoitza behar bezala egingo dela; alegia, proiektu teknikoaren, bere momentuan emandako hirigintza-lizentziaren eta ezarri beharreko araudi guztiaren arabera egingo dela —bereziki, Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuak, eraikinen irisgarritasunerako baldintzei buruzko arau teknikoei dagokionak, xedatutako araudiaren arabera—. Hortaz, aipatutako alderdiak ez badira betetzen, lizentzia hori ez dela emango espero dugu. Eskaera hori egitearen arrazoia, hein batean, etxebizitzen sarbideari dagokion arazoa da. Izan ere, etxebizitza berrietan egin diren sarbideak ez dira irisgarriak atearen pisua dela eta.



# EXPOSITORES EN LA VIA PUBLICA

La Asociación ha realizado aportaciones a la futura ordenanza que va a regular la instalación de expositores de productos de comercios en la vía pública. En las mismas se ha hecho valer la Ley de Accesibilidad y sus normas técnicas de desarrollo. El objetivo es garantizar el derecho de las personas con discapacidad a utilizar el espacio público sin obstáculos que interfieran en la autonomía personal y en la seguridad.

# ERAKUSTOKIAK BIDE PUBLIKOAN

Elkarteak ekarpenak egin dizkio saltokien produktuen erakustokiak bide publikoan jartzea arautuko duen ordenantzari. Horretarako, Irisgarritasunari buruzko Legea eta garapenerako horren arau teknikoak baliatu dira. Helburua da desgaitasuna duten pertsonek espazio publikoa erabiltzeko duten eskubidea bermatzea, autonomia pertsonalari eta segurtasunari traba egiten dien oztoporik gabe.

eginaren eginez


Plaza Simón Bolívar plaza, 9 bajo/behea
01003 VITORIA-GASTEIZ
Tfno./Fax: 945 225516
info@eginez.org
www.eginez.org • www.ponteenmilugar.eu



F.P. publicorreo ÓPTIMO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava